


ENPRESARIEN KONFIANTZA


Eurogunea erritmo neurritsuan hazi da

PMI konposatua. Eurogunea








2018an zehar moteltze bizia ezagutu ondoren, Euroguneke PMI adierazle konposatuak egonkortasuna erakusten du orain, hedaldia eta atzeraldia banatzen dituen 50eko langatik zertxobait gorago dagoen maila batean. Hain zuzen ere, ekainean 52,1eko zenbakia eskuratu zuen. Beraz, adierazle horrek iradokitzen du ekonomia europarra erritmo neurritsuan hazten ari dela oraindik. Indizearen bi osagaietatik, manufakturrek eskaintzen dute perfil negatiboena, ekainean 47,8ko balio batekin eta suspertzeko zantzurik erakutsi gabe. Aitzitik, zerbitzuen adierazleak 53,4ko datua izan zuen hileko berean, nolabaiteko sendotasuna erakutsiz. Halaber, datu hori azken zazpi hilekoetako altuena da.

Manufakturen PMI. Eurogunea




Zerbitzuen PMI. Eurogunea



PMI konposatua. Alemania**PMI konposatua. Frantzia****PMI konposatua. Erresuma Batua****PMI konposatua. Itaia**

Europako bost herrialde nagusiek bilakaera ezberdinak erakusten dituzte. Izan ere, Alemaniak hedatze leuneko tonuari eusten dio, 2013tik erakutsi zuen sendotasunetik urrun. Automobilgintzaren eta nazioarteko merkatuaren arazoez manufakturen sektorearen igurikimenak okertu dituzte.

Frantzia konfiantza oso azkar berreskuratzen ari da eta hobekuntzak begi bistakoak dira bai manufaktura bai zerbitzuetan. Erresuma Batuan adierazleak behera egin du, baina oraindik 50etik gora dago. Beste aldetik, Italiak balio positiboak eta negatiboak tartekatzen ditu. Azkenik, Espainia maila altu batetik abiatu da, baina jaitziera garrantzitsua izan du zerbitzuetan.

PMI konposatua. Espainia

Iturria: Markit